

elkarrizketa



JABIER SAENZ & IGOR MERA. (ESK)

“Prozesua, emaitza bezain garrantzitsua”

Desde 2017aren bukaeran, Batzorde Nazional Zabalak (BNA) Biltzar Nagusia atzeratzea erabaki zuen, 2018ko bukaerarako pentsatua zegoena, eta prozesu parte hartzaile bat abian jartzea ESK datozen urteetarako antolakuntza eredu berri batetara, ekintza sindikalaren eta sozialaren egituratzera eramango zuena. Prozesua 2018ko otsailean hasi zen eta V. Biltzar Nagusian bukatuko da, ekainaren 7an Erreterian. Igor Mera eta Jabier Saenz izan dira prozesu hori zuzentzeko arduradunak, beraiekin hitz egin dugu nola bizi izan duten kontatzeko. • • •

Kongresu aurreko prozesuak gutxi gorabehera antzekoak izatera ohituak gaude. Hala ere, ESK zerbait berezia egiten saiatu da. Zergatik? Nola sortzen da ideia hori?

Antolakunde parte hartzaileago eta horizontalago bat antolatzeke kezkatik, lan prozesua bertatik aterako ziren emaitzak bezain edo are garrantzitsuagoa zela ulertzen baikenuen. Parte hartzea ez da paperean soilik

defendatu daitekeen gauza bat, praktikara eraman behar da eta bitarteko eta baliabideak jarri behar dira beraz bultzatzeko.

Eskaera hori egiten dizuetenean, zein irudipen duzue? Nola ekiten diozue prozesuari?

Lehen egitekoa, prozesu ideala genituen bitarteko eta baliabideetara egokitzea izan zen. Itxaropenak egokitzea eta eskura dituzun adreiluekin eraikitzea ezinbestekoa da, bestelako bideek frustraziora eta antsietatera bakarrik eramaten dute.

Prozesuaren lehen parteak bakarkako elkarrizketa eta lan talde txikiak izan zituen oinarri...

Horretaz gain, afiliazio guztiari galdeketa bat egin zitzaion. Oso prozesu polita izan da, biltzar nagusian landuko diren arazo eta gaiak sindikatuko afiliazioaren eta militantziaren kezka izaten saiatu gara, eta ez sindikatuko egiturari gauden pertsonen soilik arduratzen digutenak.

Batzuetan zaila da konfiantza giro egokia lortzea... Bakarkako elkarrizketek erantzuteko zailak diren

gaiak mahaigaineratu zituzten, boterea, matxismoa... Emaitzek harritu zaituztete?

Arazoa ez dira elkarrizketak izan, ezta horiek giro on batetik kudeatzea, benetako buruhaustea arazo konplexuei konponbide zehatzak bilatzea da baliabideak mugatuak direnean eta motorra itzaltzeko aukerarik ez dagoenean. Prozesu guztia garatu dugu ekintza sindikaletik eta hauteskunde sindikaletatik indarririk kendu gabe.

Eztabaida taldeak askotarikoa izan dira baita mahai ganieratuko gaiak ere, zaila izan al da horiek dinamizatzea?

Pertsona batzuk beste batzuk baino eramangarriagoak dira (barreak). Orain serio, plazer bat izan da borrokarekin konprometitutako hainbeste gizon eta emakumerekin harremana izatea. Kasu batzuetan beste batzuetan baino gehiago asmatuko genuen teknikekin, baina momentu bakoitzean genuen hoberena ematen saiatu gara.

Lehen zati horren ostean, bigarrena hasi zen, agian neketsuena, datu horiek guztiak jaso eta gure sin-

dikatuaren argazki orokor bat egitea... Nolako da argazki hori? Nolako sindikatua daukagu?

Sindikatu txikitxo dugu, umila, baina oso bizia. Eraldaketa sozialarekin konprometituta dauden gizon eta emakumez osatutako kolektibo bat gara eta, gainera, oso kohesionatutako balio eta ideia praktikoko multzoa partekatzen dutenak.

Afiliatu batek artikulu batean laburtzen zuen hori, ESK dena moduren batean islatzen duen esaldi batekin, «sindikalgintza enplegu-agentzia batean bihurtzeari uko egiten dioten naufragiak lehorreratzen diren uharte txiki bat».

Jakina gabezia, urritasun, arazo... asko ditugula. Ez dugu onbertasunean erori nahi izan, baina aurrera egitea ahalbidetzeko elementu positiboetan zentratu behar ginela iruditu zaigu.

Hasiera batean lan zama handiena zuek biongan egon da, baina gero lan talde bat aritu da honi guztiari forma ematen...

Bai, alderatzeak egiteko talde batekin kontaktu dugu, azken hilabeteetan pixka bat ahaztua duguna, baita testuen erredakzioan

eta egituraren lagundu gaituzten pertsonekin ere.

Eztabaidak afiliazio osora irekiak izan badira ere, orain egitura osora iritsiko dira, eztabaida tradizionalagoak agian, ponentzia eskuan dugula... Zer espero duzue hortik ateratzea?

Beno, uste dugu antolakundearen adostasunezkoak diren gaiak jasotzen edo adierazten diren ponentzia bat aurkezten dugula ehuneko handi batean. Datoren urteetan lan tresna bezala balioko digun ponentzia praktikoko bat lantzen saiatu gara.

Hein batean, egitura osatzen dugunok lan prozesu horren parte izan gara jada. Hemendik aurrera, edonork du aukera beharrezko ikusten dituen planteamenduak egiteko. Ponentzia eztabaidarako dokumentu bat da, maiatzean edozein afiliatuk hari zuzenketak egiteko aukera izango duena. Gainera, garrantzitsua da aipatzea, orain arte prozesua dinamizatu dugunok ez dugu zuzenketen batzordearen lanetan parte hartuko.

Prozesu osoaren zein balorazio egiten duzue?

Prozesu luzea izan da, bakoitzak sindikatuan dituen ardurekin

bateragarri egin behar izan duena, gainera. Ekintza gehiago egin ahal izatea gustatuko litzaiguke, sindikatuaren bizitzan ohikotasunez parte hartzen ez duten afiliatuei zuzenean hitza gehiago ematea. Edozein kasutan, guztia mahai gainean jarrita pozik gaude egindako lanarekin. Lan egiteko modu hau, funtzionatzeko moduaren beraren ikusmolde politikoan oinarritzen dena batez ere, ESK-k etorkizunean urratzen jarraitu behar duen bidea dela uste dugu.

Ekainaren 7an, Erreterian, azkenean, gure Biltzarra ospatuko dugu, Nola egingo diozue aurre egun horri?

Oraindik falta da egun hori iristeko. Alaitasun eta ilusio handiarekin aurre egitea espero dugu. Argiak itzali eta gortinak ixtean beste ikuspegi batetik egingo diogu aurre (barreak).

ARTÍCULO EN CASTELLANO:



<https://labur.eus/m28Rb>

